

Prensa oharra

Nota de prensa

Bretxaren ingurua urbanizatzeko lanak onartu dira

Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako beste gai batzuk: Zurriola Maritimo, Ostatatzearen erregulazioa, Abegi Etxea, Bidebietako bidegorria

Donostiako Udalak beste urrats bat eman du Bretxako merkatuaren inguruko lanak amaitzeko, Baika Mercados SLk aurkeztutako Bretxako eta haren inguruko urbanizazio osagarriaren proiektuko **1. jarduketa** baimendu ondoren. Proiektuaren aurrekontua 898.228 eurokoa da, eta aurreikusitako gauzatze epea 4 hilabetekoa. Era berean, proiektu bereko **3. jarduketarako** baimena onartu da. Horren aurrekontua 150.654 eurokoa da, eta 4 hilabeteko gauzatze epea aurreikusten da.

Eneko Goia alkateak azpimarratu du Bretxako proiektua azken txanpara iristen ari dela. "Barruko lanak erritmo onean doaz, eta, pauso horrekin, inguruaren urbanizazioa egingo dugu. Urbanizazio horrek herritarrentzat oso garrantzitsua den eremu bat errematatuko du, eta bizilagunen bizi kalitatea hobetuko du".

Udalak hainbat eskuhartze egingo ditu Bretxako ingurunean, inguruko eta bertako instalazioetako hirigintza baldintzak hobetzeko. Hobekuntza horiek hainbat fasetan banatu dira, eta proiektu hau 2. faseari dagokio. Fase hori Iñigo kalearen, Aldamar kalearen eta San Juan kalearen inguruan zentratzen da, Bretxa plazaz gain.

2. fase honen barruan, proiektuak hiru jarduera independente ditu. Alde batetik, **urbanizazio osagarria**, Iñigo kaleko eta Aldamar kaleko zoladurak hobetzea eta Bretxa plazako zenbait jarduketa; bestetik, Iñigo kaleko eta San Juan kaleko **instalazioak berrezartzea**; eta hirugarrenik, **Bretxa plazako** jarduketak.

Urbanizazio osagarriaren atalean, helburua da, Iñigo kalean zoladura berritzea ibilgailuentzat izango diren eremuetan, sestra kota espaloiaeren kotaraino igotzeko, multzoari oinezkoentzako izaera emateko nagusiki, eta Aldamar kalea berrurbanizatzea ibilgailuen eta oinezkoen baldintzak hobetzeko. Gainera, Bretxako plazako argiteria sartzten da barne, honen zati baten zolaketa eta sareta batzuk gehituko dira, Arrandegi eraikineko harguneez gain.

Instalazioen atalean, San Juan kaleko eremuaren premien eta jarduketa horiek instalazioetan beharko lituzketen birkokapenen azterketa egiten da, urbanizazio osagarrian planteatutako birzolaketaekin zerikusirik gabe.

Azkenik, **Bretxako plazako** jarduketek plazaren erdiko zati bat berriz martxan jartzea ekarriko dute, egungo eraikin nagusia eraitsi ondoren.

Udalaren ustez, enpresa emakidadunak egin behar dituen gutxieneko obrak 1. eta 3. jarduketei dagozkie, ez ordea 2. jarduketari, lehendik dauden azpiegiturak ordeztu

Prensa oharra

Nota de prensa



behar direnez, ez baitira emakidaren eremuan sartzen. Era berean, Udalak ordaindu behar duen jarduketa bakarra 1. jarduketa dela kontsideratzen du (898.228 euro).

Zurriola Maritimo

Tokiko Gobernu Batzarrak Zurriola Ocean Center ABEEari esleitu dio Zurriola pasealekuko 41. zenbakian (Zurriola Maritimo) dagoen eraikinaren erabilera lagapena, ostalaritza zerbitzuetarako (taberna-jatetxea) eta/edo jarduera nautikoekin lotutako prestakuntza ikastaroak emateko eta biltegirako.

Lagapenaren baldintzek ezartzen dutenez, eraikina bere izaeraren arabera erabili beharko da, eta taberna-jatetxea jarduerarako eta/edo jarduera nautikoekin lotutako prestakuntza ikastaroak emateko eta biltegirako baino ez da erabiliko. Gainera, esleipendunaren kontura izango dira ondasuna helburuaren arabera erabiltzeko behar diren obrak. Obra horiek 710.000 eurotan zenbatu dira (BEZik gabe), eta horietatik gehienez 300.000 € jarriko ditu Udalak.

Erabilera lagapen horrek 2033ko abuztuaren 19ra arteko epea du, eta luza daiteke, betiere Udalak 2042ko abuztuaren 19ra arte erabilgarri badu ondasuna. Ekonomia araubideari dagokionez, gutxieneko kanon finko bat izango du, gorantz hobetu daitekeena: 30.208,37 € lagapenaren lehenengo 10 urteetan, eta 60.000 € (BEZik gabe), hamargarren urtetik aurrera. Kanon aldakor bat ere egongo da, hau da, zerga aurreko etekinei buruzko urteko % 4 lehenengo 10 urteetan, eta % 8 hamargarren urtetik aurrera.

Ostatatzearen erregulazioa

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du Mikel Iriondo – Santiago Peñalba ABEEari esleitzea ostatatze erabilerak arautzeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa idazteko lanen kontratua, ingurumen ebaluazio estrategikoa izapidetzeko dokumentazioa barne.

Kontratua gauzatzeko epea 24 hilabetekoa da, eta aurrekontua 94.380 eurokoa.

Abegi Etxea

Tokiko Gobernu Batzarrak Abegi Etxea harrera sozialeko gunearen eranskina eraberritzeko proiektuaren obrak kontratatzeke espedientea onartu du, familientzako aldi baterako aterpetxe gisa erabiltzeko. Lizitazioaren aurrekontua 232.631 eurokoa da eta gauzatzeko epea 6 hilabetekoa.

Jarduerak pabilioiaren barrualdea birgaitzea planteatzen du, *office*-a eta bainugela duten 3 familia logela independente eta garbitegi komuneko gune bat hartzeko. Pabilioiaren hegoaldean, aparkalekurantz, itxitura bat jartzea planteatu da, harrera

Prentsa oharra

Nota de prensa



zentroaren gainerako erabilerarekiko independizatzeko, eta pabilioiari berezko espazio bat emateko, haurrentzako jolaserako eta egonaldirako gune bat hartzeko.

Bidebietako bidegorria

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du Pasai San Pedro hiribidearen eta Bidebietaren arteko bidegorriaren proiektu eguneratuaren obren kontratazio espedientea. Litzitazioaren aurrekontua 513.359 eurokoa da eta gauzatzeko epea 4 hilabetekoa.

Trazadura Azkuene kalearen inguruan hasten da, Donostiako udal eremuaren barruan. Ibilbidea Pasai San Pedro etorbidetik doa (galtzada eta espaloi zatietik), Colombine kalera iritsi arte. Puntu horretan, aldi bereko gune batetik igarotzen da, Bidebietako Joan XXIII.a etorbidearekin bat egin arte.

Luzera, guztira, 455 metrokoa da, eta lehenengo 300 metroetan txirrindularientzat bakarrik da, 2,50 metroko zabalera baitu trazaduraren zatirik handiengan. 300 eta 400 KPen artean, sekzioa oinezkoen eta txirrindularien arteko koexistentziakoa da, eta azken 50 metroetan, garajeetara sartzen diren ibilgailu motordunekin ere izango du koexistentzia bat.

Donostia / San Sebastián, 2023ko otsailak 14